

MARKINA-XEMEIN / Peru Abarka sariak banatu dituzte Liburutegien Nazioarteko Egunean

'Arraroa' da 2010eko Peru Abarka lehiaketak emon duen ilustrazio albumaren izena, baita izana be.

JON FERNANDEZ SAN MARTIN

2010eko Peru Abarka album lehiaketaren sari banaketa egin zuten joan den domeka eguerdian, Liburutegien Nazioarteko Egunean, Markina-Xemeingo udaletxean. Narrazioaren alorrean Irati Goikoitxea Azuabarrenak (Beasain, 1984) jaso zuen saria. Ilustrazio alorrean, oster, Araiz Mesanza Iturritxak (Gasteiz, 1983). Bien beharra batuta, Arraroa izeneko albuma osatu dute: nagusientzako ilustrazio liburua.

Epaimahaiaren esanetan "narrazio biribila da Goikoetxearena, "intriga eta suspentsea ederto uztartzen dituena. Antolatzaileek agertu dutenez, aurtengo Peru Abarka lehiaketaren emaitza "berezia eta "ausarta da, bai narrazio aldetik baita ilustrazio aldetik be. Aurtengo ilustrazio albuma berba batez definitzeko albumaren izenburua bera erabili dute: "arraroa.

Pozik egoteko arrazoi bat baino gehiago izan zuten domekan Goikoetxeak eta Mesanzak: hilabeteetan egindako beharra liburu bihurtuta ikusi eta ikutu zuten, eta, gainera, aurrez aurre alkar ezagutzeko aukera izan zuten lehenengo aldiz.

Bost urteko ibilbidea

Peru Abarka lehiaketaren helburua euskal literatur produkzioan formatu berritzaileak sustatzea izan da bere sortzetik. Horrexegatik aukeratu zuten orain bost urte helduentzako album formatua. "Formatu hau batez be umeen literaturan erabili arren, Europako literatur joera barriek erakusten dute gero eta zabalagoa dela helduen literaturan be, azpimarratu du Igor Idoeta antolatzaileak.

Bost urteotan Peru Abarkak hoberako bidea egin duela uste dute antolatzaileek, narrazio lehiaketa hutsa izatetik narrazio eta ilustrazio lehiaketa izatera pasatu baita.